

Hurrengo geltokia...

ehbildu



Uribe Kosta!

EH Bilduk proposatu du metroaren maiztasuna areagotzea Plentzian, Urdulizen eta Sopelan. Metro bat **20 minuturo izan beharrean, EH Bilduk proposatzen du 13 minuturo izatea.** Teknikoki posible da, borondate kontua baino ez da.





Plentziaraino maiztasuna areagotzea

Metroa martxan jarri zenetik Sopela, Urduliz eta Plentziako bizilagunok 20 minutuko maiztasuna izan dugu, Metro Bilbaoko maiztasunik baxuena. Gaur egun, Ibarbengoako geltokira heltzen diren hiru metro unitatetik bakarrak egiten du Plentziarainoko bidea. **EH Bildutik proposatzen dugu bitik bat izatea:** horrela, maiztasuna Plentziaraino handitzeko aukera izango genuke (20 izan beharrean, 13) eta gauza bera Larrabasterrako kasuan (13 izan beharrean, 6).

Teknikoki eta ekonomikoki bideragarria

Ez dago inolako eragozpen teknikorik maiztasun hau abian jartzeko Uribe Kostan: **unitate bakar bat gehitu beharko genioke gaur egungo metro zerbitzuari.** Zerbitzuaren kostu ekonomikoa ere erabat bideragarria da, borondate eta lehentasun kontua baino ez da. Adibidez, Artaza eta Ballonti lotuko dituen itsasadar azpiko tunelean 450 milioi euro baino gehiago xahutu beharrean, garrario publikoaren zerbitzua hobetzera bideratu daiteke “inbertsio” hori.



Mugikortasun jasangarriari bultzada

Azken urteetan Uribe Kostak hazkunde demografiko handia izan du, eta bertan bizi garenok ere metro zerbitzu duina merezi dugu. Gainera, kontuan hartu behar dugu gure herrietara bisitari ugari etortzen direla, batik bat udan. Larrialdi klimatikoaren testuinguruan, inoiz baino beharrezkoagoa da auto pribatuaren erabilerari alternatibak eskaintzea, eta horrek ezinbestean eskatzen du **garrario publikoa hobetzea**, bidegorri-sarea handitzea, lo egiteko herrien ereduak aldatzea eta abar.

Urdulizko ospitalera zerbitzua hobetzea

Sopela, Urduliz eta Plentziako bizilagunei zerbitzu hau eskaintzeaz gain, beharrezkoa da maiztasuna areagotzea Urdulizko ospitalera joaten direnentzat ere. Izan ere, **ospitaleak zerbitzua ematen dio eskualde osoari, Getxo eta Leioa barne.** Ospitalera joaten diren herritar guztiek ez dute auto pribaturik eta, beraz, beharrezkoa da alternatibak eskaintzea. Gainera, ospitalera bidean doazen autoen kopurua murriztu behar dugu, gure herrien erdiguneak zeharkatu ez ditzaten, batik bat Sopelaren kasuan.



Uribe Kosta...



¡a un metro!

EH Bildu propone aumentar la frecuencia del metro en Plentzia, Urduliz y Sopela. En lugar de un metro cada 20 minutos, la propuesta de EH Bildu contempla un metro cada 13 minutos. Técnicamente es posible, solo es cuestión de voluntad.





Aumento de frecuencia hasta Plentzia

Desde que se inauguró el metro los y las vecinas de Sopela, Urduliz y Plentzia contamos con una frecuencia de 20 minutos, la más baja de todo el recorrido de Metro Bilbao. Actualmente, de cada tres unidades de metro que llegan hasta la estación de Ibarbengoa, tan sólo una finaliza su trayecto en Plentzia. **Desde EH Bildu planteamos que sea una de cada dos:** ello provocaría el aumento de la frecuencia hasta Plentzia (13 minutos en lugar de 20) y también en Larrabasterra (6 minutos en lugar de 13).

Técnica y económicamente viable

No hay ningún impedimento técnico para poner en marcha este aumento de frecuencia en Uribe Kosta: **tan solo sería necesario añadir una unidad adicional al actual servicio del metro.** El coste del servicio también es perfectamente asumible económicamente, es cuestión de voluntad y prioridades. Por ejemplo, en lugar de destinarse más de 450 millones de euros en la construcción del túnel subfluvial entre Artaza y Ballonti, podría destinarse esa “inversión” en la mejora del servicio del transporte público, etc.



Impulso a la movilidad sostenible

En los últimos años Uribe Kosta ha crecido considerablemente demográficamente, y los y las vecinas de la comarca también merecemos un servicio de metro digno. Además, debemos tener en cuenta la gran afluencia de visitantes a nuestros pueblos, sobre todo en verano. En un contexto de emergencia climática, resulta más necesario que nunca ofrecer alternativas al uso del vehículo privado, y ello implica **mejorar el transporte público**, aumentar la red de bidegorris, cambiar el modelo de pueblo dormitorio...



Mayor servicio al hospital de Urduliz

Además de ofrecer este servicio a los y las habitantes de Sopela, Urduliz y Plentzia, es necesario aumentar la frecuencia del metro también para quienes acuden al hospital de Urduliz, **hospital de referencia de toda la comarca, incluyendo Getxo y Leioa.** Todas las personas usuarias del hospital no cuentan con vehículo privado, por lo que desde las instituciones se deben ofrecer alternativas. Además, debemos intentar disminuir el número de vehículos que circulan por nuestros pueblos, especialmente en Sopela.

